

GABON KANTAK.

¿Zér zaizute, gertatzen

Arzai maiteak?

¿Zergatik zabiltzate

Pozez beteak,

Gogoz kantatzen,

Eta chirolak joaz

Ariñ saltatzen?

Belendik gatoz, pozez

Choraturikan,

Gauza miragarriyak

Ikusirikan:

¡Miragarriyak!

Gaur artean inorchok

Ez ikusiyak.

Aur bat ikusi degu

Orain jaiyoa,

Eguzkiya dan baño

Ederragoa:

Aurcho pobrea,

Baña Zeru ta lurren

Jaun ta jabea.

Zoazte zuek, cre,

Anai laztanak:

Eskeñitzera zuen

Bildots otsanak;

Auspeztutzero,

Jesus biyotzetikan

Adoratzera.

Zoazte ¡bai! zoazte;

Aingeruchoak

Kantatutzen dabilta

Kantu gozoak

Eta Zeruak

Berak ere daude gaur

oso poztuak.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.